



EROSKETA ARDURATSUA

ETEentzako gida praktikoa



REAS
EUSKADI
ekonomia alternatibo
eta solidarioa



alboan
ONG JESUITA FUNDATZIOA

Erosketa arduratsua

ETEentzako gida praktikoa

2023ko abendua

Dokumentu hau Alboan GGKEak eta REAS Euskadik sustatutako eraikuntza kolektiboko prozesu baten emaitza izan da, eta SETEM Hego Haizeak dinamizatu du. Altel SLU eta Herval Electroquímica SL enpresa txiki eta ertainekin egindako tailerretan oinarrituta egin da argitalpena. Prozesua “Bizitzaren zerbitzura dagoen ekonomiarako jardunbide eta proposamen ekosozialak ikuspegi lokal-global batetik” proiektuaren esparruan garatu da, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak eta Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatuta.



Egilea: SETEM Hego Haizea

(Nora Silva Leis, Maider Arnaiz Igartua, Iratxe Arteagoitia Recalde)

Setem

Diseinua eta maketazioa: www.ojobuey.com

Itzulpena: Lore Bilbao Aboitiz

Inprimaketa: Gráficas Lizaso

Lan hau askatasunez kopian, banatu eta komunikatu ahal izango da, betiere jatorrizko egilea nor den aipatzen bada eta helburu komertzialetarako erabiltzen ez bada. Aldatu, eraldatu edo lan eratorria sortzen bada, lizentzia berarekin bakarrik banatu ahal izango da.



REAS Euskadi Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea

Ekonopolo. Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Poloa

Harrobi plaza 4, 48003 Bilbo

944 160 566

reaseuskadi@reaseuskadi.eus

www.reaseuskadi.eus

[f](#) [v](#) [X](#) [••](#) [@in](#) @REASEuskadi

Alboan

Aita Lojendio 2, 2. 48008 Bilbo

Tel: 944 151 13 | Faxe: 944 161 938

Barañaingo etorbidea 2, 31011 Iruña

Tel: 948 231 302 | Faxe: 948 264 308

Andia kalea 3, 20004 Donostia

Tel: 943 275 173 | Faxe: 943 320 267

Estenaga apezpikua 1, 01002 Vitoria-Gas

Tel: 945 202 676 | Faxe: 945 202 676

alboan@alboan.org

www.alboan.org


[f](#) @alboan [X](#) ALBOANongd [v](#) alboan.tv

AURKIBIDEA




1

Aurkezpena
02



3

Produkzio- eta
kontsumo-eredu
nagusiaren
ordezko aukerak
06




4

Erosketa
arduratsua
ETEetan
10




2

Ekoizpen- eta
kontsumo-eredua
04



5

Erosketa
arduratsurako
etiketak eta
ziurtagiriak
16




7

Erosketa
arduratsurako
baliabideak
eta jardunbide
egokiak
28




6

Erosketa
arduratsurako
tresna
praktikoak
24



8

Eranskinak
32



1


AURKEZPENA

Argitalpen honek sektore jakin batean, ETEetan, erosketa arduratsuaren inguruko sentsibilizazio- eta kudeaketa-tresna izan nahi du, eremu pribilegiatua baita norabide horretan lan egiteko; alde batetik, oro har, sektore ekonomiko esanguratsua delako produktu jakin batzuen erosketan eta hainbat zerbitzu eta horniduraren kontratazioan, eta, beraz, esparru horretan duen ahalmen eraldatzailea garrantzitsua delako; bestetik, erosketa arduratsu bat egiteak aukera ematen duelako enpresaren kudeaketaren esparrua enpresa-idea eta -proiektuekin lotzeko, ingurunearentzat ekonomia eraldatzailea susta dezaten hainbat ikuspegitatik.

Alboanek eta REAS Euskadi-Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareak bultzatutako lan hau “Bizitzaren zerbitzura dagoen ekonomiarako jardunbide eta proposamen ekosozialak ikuspegi lokal-global batetik” izeneko proiektuaren barruan dago. Proiektu hori Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak eta Bizkaiko Foru Aldundiak batera finantzatu dute, eta Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-, ekonomia- eta hezkuntza-eragileen gaitasunak indartzea du helburu, beren erakundeak eta jardunbide sozial eta ekonomikoak eralda ditzaten, justizia-irizpideen araberako trantsizio ekosoziala garatzen laguntzeko.

Gida hau partaidetza-prozesu baten bidez egin da, SETEM Hego Haizeak dinamizatua, eta ETEek ekarpenak egin dituzte, beren esperientzia praktikoa oinarritzat hartuta. Erakundeekin tailerrak egin dira erosketa arduratsua definitzen duten irizpideak eraikitzeko eta gidak jorratu beharko lituzkeen gaiak identifikatzeko. Era berean, ETEek gida abian jartzen lagundu dute, eta esperientzia horrekin, doikuntzak eta gida hobetzeko lanak egin dira.

Dokumentu hau prozesu kolektibo horren emaitza da. Bertan, ETEek beren enpresetan erosketa arduratsua egiteko gomendioak aurkituko dituzte. Produktuak eta zerbitzuak erosterakoan kontuan hartu beharreko gizarte- eta ingurumen-irizpideak biltzen ditu gidak, eta irizpide horiek txertatzeko jarraibideak ematen ditu. Zehazki, tresna errazak ditu ETEek erosketa arduratsuan aurrerapausoak eman ditzaten.



Badakigu politika horiek kudeaketa ekonomiko konplexua duten erakundeetan txertatzea zaila izan daitekeela, eta, beraz, uste dugu garrantzitsua dela pixkanaka urratsak ematen joatea. Argitalpen honek bide hori egin nahi duten ETEen bidaide izan nahi du, politikak eta jardunbideak aldatzeko bidean, funtzio sozial eta ekonomiko eraldatzailea indartzeko. Espero dugu baliagarria izatea eta ETEei aukera ematea kontsumo alternatiboaren aldeko mugimenduarekin bat egiteko, gizarte hobeak eta justizia ekosozialarekin konprometituak eraiki ditzaten pertsona guztientzat eta planeta osoarentzat.



2

EKOIZPEN- ETA KONTSUMO- EREDUA

Ekoizpen- eta kontsumo-eredu nagusia eredu globalizatu bat da, eta eredu horretan korporazio multinazional handien kopuru txiki batek ekintzak burutu eta erabakiak hartzeko boterea du eta ekonomia globala kontrolatzen du. Enpresa handi horiek irabaziak kosta ahala kosta maximizatu nahi dituzte, langileak eta baliabide naturalak ustiatuta bada ere. Sistema horren bidez, merkatua erdigune bihurtu da, eta, beraz, biztanleriaren ongizatea herrialdeko ekoizpen- eta kontsumo-indizearen (BPG) bidez neurtzen da, eta **bizitzak, biztanleria osoarenak zein naturarenak, kapitalaren zerbitzura jartzen dira.**

Sistema hori bi premisatan oinarritzen da: alde batetik, material eta baliabide naturalak infinituki eskuratu eta eralda daitezkeela; eta, bestetik, kontsumoak etengabea izan behar duela. Hala ere, gaur egun, klima-krisialdi larria dela-eta, eta gizartearen gehiengoa geldiarazi zuen pandemia baten ondoren, badakigu bi premisa horiek okerrak direla. Baliabide natural mugatuak dituen planeta batean bizi gara, baina ekoizpen- eta kontsumo-eredu hori elikatzeko, tasa jasanezin batean ustiatu dira, epe luzerako ondorioak kontuan hartu gabe. Dagoeneko ezin gara globalki mantendu natura leheneratzeko gai den aberastasunaren bidez; aitzitik, leheneratze hori ahalbidetzen duten sakoneko ondasunak kaltetzen ari gara. Gure biziraupen hutserako (ura, elikadura, argia, etab.) planetarekiko dugun mendekotasun ekologikoa (**ekomendekotasuna**) ulertzea funtsezkoa da naturaren prozesuen jarraitutasuna eta giza garapena bermatzeko. Testuinguru horretan, eredu horren ekoizpen- eta kontsumo-espilari eusteak planetaren suntsipena azkartu besterik ez du egingo.

Natura ustiatzeaz eta suntsitzeaz gain, sistema horrek **bazterkeria eta prekaritatea eragiten ditu munduko biztanleriaren zati handi batean**, batez ere munduaren Hegoaldean, gutxiengo baten mesedetan. Horren adibide dira deslokalizazioa eta antzeko mekanismoak. Jardunbide hori kolonialismo modu berri bat da, eta enpresa handiek beren jardueren zati bat beste herrialde batzuetara (normalean munduaren Hegoaldera) eramatean datza, kostuak merkatzeko. Enpresa horiek eskulan merkeaz eta herrialde horietako lan- eta ingurumen-lege bigunez baliatzen dira. Gainera, laneko eta gizarteko kostuak murrizten dira, batez ere emakume langileei esker, baldintza prekarioetan kontratatzen baitira, eta, askotan, gizarte-babesik edo beren eskubideak defendatzeko sindikaturik gabe. Horrek esan nahi du emakumeen eskubideak sistematikoki urratzen direla; izan ere, emakumeek lan-arloko prekaritate eta indarkeria gehiago jasaten dute eta haien eskubideak gehiago urratzen dira, gizartean dagoen genero-desberdinkeria dela-eta.

Behar guztiak kontsumoaren bidez bete daitezkeela sinestarazten digun sistema honen aurrean, **gure erosketa-ohiturekin kritikoak izan behar dugu**. Funtsezkoa da, halaber, **geure buruak eraldaketarako eragileztat hartzea** eta, beraz, gure ekoizpenaren eta kontsumoaren ardura dugula onartzea, eta ikuspegi jasangarriagoa eta arduratsuagoa hartzea, baliabide naturalen fininitasuna, planetaren mugak eta giza eskubideak kontuan hartuta. Horren barruan sartzen dira kontsumoa murriztea eta modu eraginkorrago, jasangarriago eta etikoagoan ekoiztea, ekonomia zirkularra eta hondakinen murrizketa sustatzea, eta naturaren eta tokiko komunitateen eskubideak errespetatzea.

3


PRODUKZIO- ETA KONTSUMO-EREDU NAGUSIAREN ORDEZKO AUKERAK



Sistema sozioekonomiko kapitalistak ez du funtzionatzen, merkatuan, hazkundera eta onura indibidualean jartzen duelako arreta, ekoizleen eta langileen eskubideak eta naturaren eskubideak alde batera utzita.

Beraz, paradigma-aldaketa bat bultzatu behar da, gure gizarteen erdigunean bizitzaren jasagarritasuna jarri ahal izateko. Horretarako, ekonomia osoa berrantolatu behar da, eta naturaren funtzionamendua, dinamikak eta gaingaitasunak ez diren mugak hartu behar dira kontuan. Horretan oinarritzen da, hain zuzen ere, **Ekonomia Sozial eta Solidarioaren (ESS)** proposamena, eredu ekonomiko kapitalista eta heteropatriarkalaren ordezkotako aukera gisa sortzen baita.


Eredu hau kudeaketa demokratiko eta partaidetzazkoan, justizia sozialean, ingurumen-jasagarritasunean eta genero-ekitatean oinarritzen da.



ESSk giza premiak asetzea du helburu, etekinak maximizatzea baino gehiago, eta eredu ekonomiko bidezko, ekitatibo eta jasangarri bat sortu nahi du, bizitzaren jasangarritasuna erdigunean jarriz.

ESSk giza ongizatea eta ekitate soziala indartzea proposatzen du, ekoizpen eta kontsumo arduratsuko eredu baten bidez. Eredu horrek giza duintasuna eta giza eskubideekiko errespetua sustatuko ditu, bai eta ingurumena zaintzea eta babestea ere. ESS ez da soilik proposamen ekonomiko bat, baizik eta proposamen eraldatzaile sozio-kultural bat, komunitate osoaren eta naturaren beharrak gizartearen erdigunean jarriko dituen mundu bat eraikitzeko aukera emango diguna.

Ekonomia Alternatibo eta Solidarioko Sareen Sareak ekitatearen, lan duinaren, jasangarritasun ekologikoaren, lankidetzaren, aberastasunaren bidezko banaketaren eta ingurunearekiko konpromisoaren printzipioetan oinarritutako eredu berrietarako trantsizioa aldarrikatzen du.



Gure egunerokotasunean ezarrita dagoen kontsumo akritikoaren ordez, ESSk Kontsumo Kontzientea, Arduratsua eta Eraldatzailea (KKAЕ) proposatzen du.

Kontsumo kontzienteak, arduratsuak eta eraldatzaileak eraldaketa soziala sustatzen duen erosketa-ekintza edo ez erostea aipatzen ditu, eta **produktuak eta zerbitzuak kalitatearen eta prezioaren arabera** ez ezik, **irizpide etiko, kultural, sozial eta ingurumenekoen arabera ere aukeratzen ditu**, bidezkoenak eta jasangarrienak eskuratzea sustatuz. Praktikan, KKAЕ honetan datza:

- Erosteke benetako beharra dagoen ala ez aztertzea (trukea, ez erostea, alokairua, mailegua, etab.).
- Produktuen eta zerbitzuen jatorriari, ekoizpen-prozesuei (zer materialez eginda dauden eta zer baldintzatan) eta inpaktuei buruzko informazioa jasotzea.
- Enpresa hornitzailearen politika ezagutzea eta ikertzea.
- Tokiko produktuak, nekazaritza ekologikokoak, bidezko merkataritzakoak eta ingurumena errespetatzen dutenak erosteari lehentasuna ematea.
- Produktuak eta bilgarriak murriztea, berrerabiltzea eta birziklatzea, balio-bizitza luzatuz, hondakinak murrizteko.
- Produktu jasangarriak eta kalitatezkoak aukeratzea, erabilera bakarreko aukeren ordez.
- Ekonomia zirkularra sustatzea.
- Jardunbide jasangarri eta arduratsuekin konprometitutako enpresei laguntzea.

KKAEk, kontsumo arduratsua sustatzeaz gain, egungo ekoizpen- eta kontsumo-ereduetan aldaketa sakonak sortu nahi ditu. Sistema ekonomiko eta sozial nagusia zalantzan jartzea eta desafiatzea dakar, eta aukera inklusiboagoak eta solidarioagoak sustatzea. Ideia hau indartzen du: **kontsumitzaileek eta enpresek** gure kontsumoaren (edo ez kontsumitzearen) bidez giza eskubideen eta naturaren eskubideen defentsa eskatzeko **boterea dugu**, eta beraz, baita erantzukizuna ere.

Gaur egun, eraldaketa horren beharrak aintzatespena lortu du mundu osoan. 2015ean, Nazio Batuek **2030 Agenda** onartu zuten. Ekintza-plan horren helburua da munduak aurre egin beharreko ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-erronkei heltzea eta 2030erako pertsonen eta planetaren bizitza hobetzea. Agendan jasotako **Garapen Jasangarrirako 17 Helburuek (GJH)** hainbat gai jorratzen dituzte, hala nola pobrezia desagerraraztea, elikagaien segurtasuna, osasuna, hezkuntza, genero-berdintasuna, ur garbia eta saneamendua, energia garbia, ingurumenaren babesa, justizia soziala, bakea eta inklusioa.

Plan horrek aitortzen du egungo ekoizpen- eta kontsumo-eredua azkar ari dela kapital naturala agortzen, ekosistemak degradatzen eta herrialdeek beren beharrei modu jasangarrirako erantzuteko duten gaitasuna ahultzen. Horregatik, helburuen artean, **Garapen Jasangarrirako 12. Helburua** ezarri zen agendan. Helburu horren bidez **ekoizpen- eta kontsumo-ereduak jasangarriak eta arduratsuak izango direla bermatu** nahi da, eta, horretarako, horiek eraldatu behar direla azpimarratzen du.

Helburu hori eta beste guztiak lortzeko, gobernuen, sektore pribatuaren eta gizarte zibilaren arteko **lankidetzaren eta elkarlana** sustatzen ditu, **erronka globalei** modu integralean **heltzeko**. 2030 Agenda ekintzarako deia da alderdi interesdun guztientzat, baita enpresentzat ere, elkarlanaren bidez etorkizun jasangarri, bidezko eta ekitatiboa lortze aldera.

12. GJHri dagokionez, enpresek ekoizpen-jardunbide jasangarrirako neurriak hartzeko eta ingurumenean eta gizartearen ahalik eta inpaktu txikiena eragingo duten produktu eta zerbitzu arduratsuak eskaintzeko erantzukizuna dute. Hona hemen adibide batzuk:

- Energiaren kontsumoa eta berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea.
- Hondakinen kudeaketa arduratsua.
- Produktu eta zerbitzu arduratsuak sustatzea.
- Ekonomia zirkularra sustatzea.
- Hornidura-katean jardunbide bidezko eta etikoak sustatzea.
- Jasangarritasunari buruzko hezkuntza eta kontzientziazioa.

Enpresak funtsezko eragileak dira ekonomian, enplegua eta aberastasuna sortzen dutelako eta kokatuta dauden komunitateetako garapen ekonomikoa bultzatzen dutelako.

Enpresen jarduteko moduak eta merkataritza-erabakiek eragin nabarmena dute tokiko ekonomian, ekonomia nazionalean eta globalean, eta eragina dute aberastasunaren banaketan eta komunitatearen bizi-kalitatean. Beren ekintzek lan-kontratudun langileei, bezeroei, enpresa hornitzaileei eta beste alderdi interesdun batzuei eragiten diete. Egiten dituzten eragiketek ondorioak izan ditzakete baliabide naturaletan, biodibertsitatean, airearen eta uraren kalitatean, klima-aldaketan, etab.

Zehazki, ETEak dira sistema ekonomiko eta sozialaren eragileetako bat, Euskadiko produkzio-sarearen ehuneko 84 osatzen baitute. Gainera, berrikuntza eta digitalizazio ekimen ugariaren eta sozialki arduratsuak diren proiektuen protagonistak eta bultzatzaileak dira.

Enpresa-sektorearen erantzukizuna ez da bakarrik haiek kokatuta dauden lurraldeko tokiko erregulazioak betetzea; aitzitik, hornidura-katearen etapa guztietan giza eskubideak eta naturarenak errespetatu eta sustatuko dituzten jardunbide arduratsuak hartu behar dituzte, baita munduaren Hegoaldeko enpresa hornitzaileetan eskubide horiek beteko direla bermatu ere. **Enpresa-jarduerek berrikuntza bultzatzeko eta konponbideak sortzeko ahalmena** dute, eta baita **lan-eskubideak eta ingurumenaren zaintza prebenitzeko eta defendatzeko** soluzioak sortzeko ahalmena ere.

Azken hamarkadetan nazioarteko esparruak eta arauak sortu dira, hala nola **Enpresei eta Giza Eskubideei buruzko Nazio Batuen Printzipio Gidariak**.

Printzipio horiek enpresek beren eragiketetan giza eskubideak errespetatzeko estandarrak ezartzen dituzte. Era berean, enpresek erantzukizun sozial eta kolektiboaren arloan duten interesa eta parte-hartzea handitu egin da.

Azken hiru urteetan, REAS Euskadi elkarteak (Ekonomia Alternatibo Solidarioaren Sarea) eta Alboan GKEak, hezkuntzako, gizarteko eta enpresako eragileekin batera, gogoeta egin dute Hiritar Enpresaren kontzeptuari buruz; izan ere, enpresa-eredu hori bere ekintzen erantzulea da, gizarte-eztabaidan parte hartzen du eta beste eragile batzuekin lotzen da, gizarte-eredu bidezkoago eta jasangarriago baterantz aurrera egiteko. Hiritar Enpresak onura ekonomikoak sortzeaz gain, jarduten duen gizartean eragin positiboa izan nahi du.

Enpresa txiki eta ertain asko aurrerapausoak ematen ari dira Hiritar Enpresaren kontzeptuak adierazten duen norabidean, eta ingurunean eragin positiboa izan nahi duten ekimenak bultzatzen ari dira. Ildo horretan, bide garrantzitsua da enpresa txiki eta ertainek ekoizpen eta kontsumo jasangarriko eredu bat eraikitzen laguntzea. Horretarako, erosketara arduratsuaren aldeko apustua egitea da modurik eraginkorrenetako bat; izan ere, ETEek duten eraldatzeko gaitasun handia eta trakzio-efektua direla eta, aldaketa eragin dezakete, pertsonentzat eta planetarentzat ekoizpen-eta kontsumo-eredu arduratsuago eta jasangarriago baterantz.

4

EROSKETA ARDURATSUA ETEETAN

4.1

Irizpide sozialak
11

4.2

Ingurumen-irizpideak
14



Erosketa arduratsua giza eskubideak eta ingurumena errespetatzen dituzten produktuak, zerbitzuak eta hornitzaileak erosi eta aukeratzekoan gizarte- eta ingurumen-irizpideak kontuan hartzea da.

Irizpide horiek ez dituzte batzuk besteak baztertzen, osagarriak dira. Erosketa arduratsua modu orekatuan txertatu nahi ditu ondasun eta zerbitzuen ekoizteko, eskuratzeko eta hondakinak kudeatzeko prozesuaren fase guztietan. Gainera, irizpide horien aplikazioa aldatu egin daiteke sektorearen eta enpresa bakoitzaren behar espezifikoaren arabera, batzuetan hornidura-katea oso konplexua izan baitaiteke.

Irizpideak txertatzea ibilbide luzeko prozesua da, eta hausnarketa eta erosteko eta kontratatzeke gure ohiturak etengabe birplanteatzea eskatzen du. Horregatik, garrantzitsua da gure helburuekin ariketa errealista egitea, urratsak ematea eta probak egitea irizpideak aplikatzea errazagoa den erosketekin, bai eta emandako pausoen jarraipena eta ebaluazioa egitea ere.



Gainera, enpresa hornitzaileei irizpide horiek betetzeko eskatu aurretik, funtsezkoa da gure jardunbideei begiratzea, eta gure enpresaren ikuspegia eta gure hornitzaileei eskatzen dieguna bat etor daitezen saiatzea. Beraz, lehenengo urratsa hausnarketa egitea eta gure enpresen barruan gizarte- eta ingurumen-irizpideak txertatzea izango litzateke.

Erosketa politiketan gizarte- eta ingurumen-irizpideak txertatzea bereziki garrantzitsua izan daiteke ETEentzat erosketa arduratsua egiteko joera gero eta handiagoa dagoen egungo testuinguruan, bereziki erakunde publikoetan, Erosketa Publiko Arduratsuaren bidez. Ildo horretan, administrazio publikoak gizarte- eta ingurumen-irizpideak sartzen ari dira kontratazio-pleguetan, eta horrek erraztu egiten du ingurumen-babesa, gizarteratzea eta laneratzea, bidezko merkataritza edo kalitatezko enplegua bezalako gaiak barne hartzen dituzten enpresek kontratu publikoen esleipena lortzea.

Erosketa arduratsua, batez ere, gizarte- eta ingurumen-irizpideak aplikatuz egin daiteke.

4.1. Irizpide sozialak

Erosketa arduratsuaren irizpide sozialak merkataritza-jardunbide bidezko, etiko eta gardenak hartzearekin zerikusia duten alderdiei dagozkie. Jardunbide horiek lan-eremuan eta komunitatean giza eskubideak errespetatuko dituzte, ustelkeria eta esplotazioa ekidindo dute, hornidura-kate osoan haurren lanaren aurkako borroka sustatuko dute, eta nazioarteko merkataritzan bidezko merkataritzako ekimenak eta produktuak babestuko dituzte. Irizpide sozialek honako gai hauek hartuko dituzte kontuan: enpleguaren kalitatea, genero-ikuspegia, gaitasun desberdinak dituzten pertsonak kontratatzea, laneratzeako enpresak eta enplegu-zentro bereziak kontratatzea, eta tokiko garapena sustatzea. Horri esker, komunitateak lotura ekonomiko eta sozial handiagoa izango du enpresarekin edo erakundearekin.

Irizpide sozialak aplikatzeko, enpresek aukera-berdintasuna, giza eskubideekiko errespetua, partaidetza komunitarioa eta alderdi interesdunen arteko lankidetzak sustatzen dituzten politikak eta jardunbideak ezarri beharko lituzkete.

Irizpide horiek txertatzeak esan nahi du hornitzaileak eta produktuak hautatzeko prozesuan produktuaren jatorria eta ekoizpen- eta fabrikazio-baldintzak ezagutu behar direla. Horrela, enpresak merkataritza-jardunbideetan gardenak izatea eta hornidura-kateari buruzko informazioa ematea sustatzen da.

Ondoren, irizpideak zerrendatuko ditugu, horiek aplikatzeko gauza daitezkeen ekintzekin batera:

Irizpidea

1. Lan-baldintza onak

- Hornitzaileei Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) oinarrizko hitzarmenak errespetatzeko eskatzea.
- Hornitzaileei beren lan-baldintzei buruz galdetzea eta bidezkoak eta seguruak direla baieztatzea; horrez gain, lan-arloan, soldatan edo laneko segurtasun eta osasunean borondatezko hobekuntzak dituztenak (amatasun-/aitatasun-baimenak/edoskitzaroa luzatzea; langile mugagabe gehiago izatea, etab.) balioestea.
- Laneko arriskuen prebentziorako politika egokiak dituzten hornitzaileak kontratatzea. Hori kontuan hartuko da hornitzaileak azpikontrataturako enpresentzako ere.

2. Genero-ekitatea

- Hornidura-katean genero-berdintasuna sustatzea, adibidez, hornitzaile emakumeak eta/edo ez-zisheteronormatiboak kontratatuz.
- Erakunde hornitzaileek berdintasun-politikak, indarkeria matxisten eta diskriminazioaren kontrako protokoloak dituzten ikertzea.
- Genero-berdintasuna eta aniztasuna sustatzen duten politikak dituzten eta sexu-jazarpenaren eta beste arrazoï batzuek eragindako jazarpenaren aurkako politika duten hornitzaileei zerbitzuak erostea.

3. Gizarte-inklusioa

- Dibertsitate-politikak dituzten hornitzaileei zerbitzuak erosteari lehentasuna ematea, bereziki lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten kolektiboen enpleguan (trans pertsonak, migratzaileak, gazteak, emakumeak, 50 urtetik gorako pertsonak, gutxiengo etnikoak, desgaitasuna duten pertsonak, iraupen luzeko langabeak, etab.).
- Dibertsitate funtzionala duten pertsonak, gizarte-desabantailan edo bazterkeria jasateko arriskuan daudenak eta abar kontratatzea, laguntzea eta babestea.
- Gizarte-inklusioa eta ekonomia sozial solidarioko erakundeak sustatzea, besteak beste, bazterkeria jasateko arriskuan dauden pertsonak enplegatzan dituztenak. Horretarako, [REASen merkatu soziala](#) kontsulta daiteke.
- Gizarteratze-zentroekin edo enplegu-zentro bereziekin lan egitearen alde egitea. Horretarako, [Gizatea](#) EAEko laneratzeko enpresen elkartearen direktorioa³ kontsulta daiteke.
- Behar diren irisgarritasun-baldintzak dituzten hornitzaileak aukeratzea, hau da, espazioek, zerbitzuek, garraio-bideek, prozesuek, produktuek, tresnek eta mekanismoek bete beharreko ulergarritasun- eta erabilgarritasun-baldintzen multzoa, pertsona guztiek segurtasunez eta erosotasunez eta ahalik eta modu autonomoenean eta naturalenean erabili eta onura atera ahal izateko.



Irizpidea

4. Tokiko garapena eta partaidetza komunitarioa sustatzea

- Tokiko hornitzaileak eta enpresa txikiak kontratatzeari lehentasuna ematea, tokiko komunitateei eta kolektibo zaurgarrienei tokiko garapen ekonomikoa sustatzeko laguntza emateko.
- Hornitzaileak komunitateari laguntzeko hartzen dituzten neurriak ezagutzea eta ikertzea, bai eta komunitatearentzako baliozko proiektuak babesten dituzten ere (hezkuntza-, osasun-, kultura-, kirol-programak, etab.).

5. Bidezko merkataritza-jardunbidek sustatzea

- Ekoizpen-kostua ordainduko duen eta ekoizleentzat onargarriak diren lan- eta bizi-baldintzak ahalbidetuko dituen bidezko prezioa ordainduko dela bermatuko duten produktuak eta hornitzaileak bilatzea.
- Bidezko merkataritza-jardunbideak betetzen direla egiaztatzea, auditoretzen eta monitorizazioaren bidez.
- Errespetuan eta konfiantzan oinarritutako merkataritza-harremanak sortzea, epe luzerako.
- Bidezko merkataritza aukeratzea Hegoaldetik datozen produktuak erosterakoan; adibidez, opariak egiteko, ekitaldien cateringetarako eta enpresetako salmenta-makinetarako.

6. Finantza etikoen eta aseguru etikoen tresnak erabiltzea eta sustatzea

- Banku etikoa erabiltzea ETEen finantza-kudeaketarako eta inbertsio-politikarako.
- Aseguruak aseguruen kudeaketa etiko eta solidarioa egiten duten, onura sozialak ikusarazten dituzten eta aseguru-merkatuan banku etikoari eta mutualismoari lotutako jardunbideak txertatzen dituzten aseguru-etxeen bidez kontratatzea.
- Finantza etikoen eta aseguru etikoen tresnak erabiltzen dituzten hornitzaileak hautatzea.

7. Gardentasuna eta erantzukizuna hornidura-katean

- Erosketa arduratsuen irizpideen txertatze-mailaren jarraipena eta ebaluazioa egingo duen batzorde bat sortzea.
- Erosken diren produktuen trazabilitateari buruz ikertzea.
- Hornitzaileei gardentasuna eskatzea ekoizpena garatzeko baldintzei buruz.



Azken batean, enpresek hainbat estrategia eta tresnaren bidez txerta ditzakete irizpide horiek beren kudeaketan, eta, horrela, haien eragin soziala positiboa eta jasangarria izango dela ziurta dezakete.

4.2. Ingurumen-irizpideak

Klima-aldaketaren mehatxuak, baliabide natural gero eta urriagoen gaineko presio gero eta handiagoak eta arazo horiei lotutako kostu eta inpaktu sozialek indarrean dagoen ekoizpen- eta kontsumo-ereduari lotutako ingurumen-inpaktuak birpentsatzera behartzen gaituzte. Eskala globalean inpaktu txikiagoa sortzeko alternatiba bat da ingurumen-irizpideak txertatzea erosketa-prozesuetan, ekoizpenetik hasi eta bizi-zikloa amaitu arte.

Ingurumen-irizpideak txertatzeak esan nahi du kontuan hartu behar direla karbono-aztarna, baliabide naturalen kontsumoa (materialak, ura, energia), elementu toxikorik baduten, hondakinen kudeaketa, material birziklatuen erabilera eta produktuak eta zerbitzuak ekoiztean eta banatzean sortutako kutsadura.

Ekonomia sozial eta solidarioaren kasuan, irizpide horien artean daude, halaber, biodibertsitatea sustatzea, animalien eskubideak errespetatzea eta ekosistema naturalak eta kulturalak babestea. ESSk, gainera, tokiko ekoizpena eta kontsumoa sustatu nahi ditu, bai eta sektoreko enpresen eta erakundeen arteko lankidetzaren ere, ingurumen-inpaktu positiboa eta iraunkorra lortzeko.

Ingurumen-irizpideek lotura estua dute ingurumen-jasangarritasunari buruzko araudiekin, eta, beraz, lehen urratsa izan daiteke enpresentzako gai horri buruzko legeriaren berri ematea. Horretarako, bitatzaile hau erabil daiteke.

Hauk dira ingurumen-irizpideak eta horiek aplikatzea erraztu dezaketen ekintzak:

Irizpidea

1. Berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea

- Ikertzea ea enpresa hornitzaileek CO2 emisioen barne-kontrola egiten duten eta karbono-aztarna kalkulatzeko tresna erabiltzen duten¹.
- Ibilgailua erosi behar bada, lehenetasuna ematea motor ez-kutsakorra dutenei edo trakzio elektrikokoei.

2. Hondakinen kudeaketa egokia, materialak murriztea, berrerabiltzea eta birziklatzea barne

- Enpresa hornitzaileek ekoizten dituzten produktu edo zerbitzuen bizi-ziklo osoan bizi-zikloaren azterketa (BZA), ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa (IIE), edo antzeko tresnak erabiltzen dituzten ikertzea.
- Hondakinak eta emisioak sortzea saihesten edo murrizten duten produktuak erostea; gainera, ondoren produktu horiek konpontzea edo birziklatzea erraztuko dute, eta material birziklatuz osatuta egongo dira.

3. Natura-baliabideen kontserbazioa

- Natura-baliabideen erabilera murriztea, energiaren, uraren eta beste natura-baliabide batzuen erabilera murrizteko neurriak ezartzea, hala nola eraikinen energia-eraginkortasunerako jardunbideak eta uraren ekoizpen eta kudeaketa eraginkorra.
- Beroaren eta elektrizitatearen hornidurarako energia berriztagarriak sortu, ekoizti eta merkaturatzen dituzten enpresak, eta, ahal den neurrian, autokontsumoa eta energia-subiranotasuna bultzatzen dutenak kontratatzea.

4. Ingurumen-inpaktua murrizten duten produktuak eta zerbitzuak sustatzea

- Nekazaritza ekologikotik datozen elikagaiak eta produktuak erostea.
- Ahal bada, bigarren eskuko produktuak erostea.
- Material birziklatuak erostea.
- Hornitzaileek eskaintzen dituzten produktu ekologikoen lerroak aukeratzea.
- Hurbileko produktu eta enpresen aldeko apustua egitea, tokiko jarduera sustatu eta indartzeko eta, horrela, gutxiago kutsatzen duten salgaien garraioak erabiltzeko.
- Produktu jakin batzuk erosteko premiari buruz hausnartzea, eta beste aukera batzuk bilatzea, hala nola alokairua edo mailegua.
- Produktu toxiko edo kutsagarriak ez erostea.

5. Jardunbide jasangarriekiko eta ingurumen-erantzukizunarekiko konpromisoa egiaztatzen duten ingurumen-ziurtagiriak eta -zigiluak

- Ingurumen- eta gizarte-jasangarritasunarekin konprometitutako hornitzaile arduratsuak hautatzea, hornidura-katearen etengabeko hobekuntzan elkarrekin lan egiteko. Hornitzaileek irizpide hori betetzen dutela jakiteko modu bat ekonomia sozial eta solidarioko enpresak eta erakundeak aukeratzea da. Mota horretako enpresak aurki ditzakegu, besteak beste, [Merkatu Soziala](#) eta [Me Cambio](#) bilatzaileetan.
- Ingurumen-etiketak eta -ziurtagiriak egiaztatzen dituzten enpresak aukeratzea (informazio gehiago 7. atalean).



Azken batean, ingurumen-irizpideei esker, erosketa-prozesuek ingurumena errespetatzen dute, eta ekoizpen- eta kontsumo-eredua jasangarri bihurtzen da.

¹ Dokumentu honen 6. atalean horri buruzko hainbat tresna daude.

5

EROSKETA ARDURATSURAKO ETIKETAK ETA ZIURTAGIRIAK

5.1

Ekonomia sozial eta solidarioko enpresak
18

5.2

Ziurtagiriak eta ekimenak, gizarte-irizpideak
eta bidezko merkataritzako irizpideak
kontuan hartuta
19

5.3

Ingurumen-ziurtagiriak
21

Batzuetan zaila izaten da produktuen ekoizpen-baldintzak ezagutzea, eta, beraz, etiketak eta ingurumen- eta gizarte-ziurtagiriak lagungarriak izaten dira produktuen ateratze-, ekoizpen- eta prozesatze-baldintzak ezagutu eta bermatzeko. Ziurtagiri horiek irizpide desberdinak izaten dituzte, eta horietako bakoitzak aurretik aipatutako irizpide bat edo gehiago nabarmentzen ditu, baina guztiek giza eskubideak eta naturaren eskubideak hartzen dituzte oinarritzat. Hau da, produktuek ingurumenean inpaktu txikiagoa dutela eta/edo ekoizpen-sisteman ekoizleen eta langileen eskubide guztiak errespetatu direla bermatzen dute.

Nahitaezko informazioaz gain, produktuen etiketak produktuen jatorriari, ekoizpenari eta kalitateari buruzko informazio baliotsua izan dezake.

Ziurtagiri-prozesuek enpresa-estrategia eta -ekintzen barne-zuzenketa bultzatzeko, eta estrategia eta ekintza horietan gizarte- eta ingurumen-balioak txertatzera bideratzeko ahalmena dute.

Ingurumenaren eta giza eskubideen babesari buruzko legeria gero eta handiagoa den arren, eta, beraz, etiketek eta ziurtagiriekin informazio gehiago duten arren, ziurtagiriak lortzea aukerakoa da oraindik. Hala eta guztiz ere, zenbait produktuk eta enpresek, nahiz eta tokian-tokian edo nazioartean araututako etiketa eta ziurtagiririk ez izan, gizarte- eta ingurumen-irizpideak betetzen dituzte, eta horiek bermatzen dira **partaidetzazko ziurtagirien, konfiantza-ziurtagirien** eta abarren bidez. Esate baterako, **Partaidetzazko Berme Sistemetan (PBS)** produktuen ekoizpenean eta kontsumoan interesa duten alderdiak ikuskapen- eta ziurtagiri-prozesuan parte hartzen dute. Partaidetzazko Berme Sistemak printzipio eta helburu komunetan oinarritzen dira, eta horiek garatzen dituzten ekoizleen errealitate sozialetara, geografikoetara eta giza errealitateetara egokitzen dira. Agroekologiaren esparruan, **EHKOLEktiboak** bultzatutako Partaidetzazko Berme Sistema aurki dezakegu gure inguruan. Horren bidez nekazariak irizpide agroekologikoekin identifikatu daitezke.

Enpresa askok gizarte- eta ingurumen-irizpideak benetako konpromiso eta estrategia gisa barneratzen dituzten arren, asimilazio hori joera edo moda errentagarri ere bihurtu da azken hamarkadan enpresa askorentzat, eta ondorioz, kontzeptu horiek bereizi gabe erabili dira marketin-tresna gisa, ospe handiagoa eta, beraz, salmenta gehiago lortzeko. Horregatik, beharrezkoa da ikuspegi kritikoa izatea eta irizpide horiek betetzen direla bermatzen duten ziurtagiriak eta etiketak ezagutzea.

5.1. Ekonomia sozial eta solidarioko enpresak

Irizpide arduratsuak dituzten hornitzaileak aukeratzeko modu fidagarri bat **ekonomia sozial eta solidaria jotzea da**. Ekonomia pertsonen ongizatearen eta ingurune naturalaren zerbitzura jartzen dutenez, mota horretako erakundeen berezko ezaugarria da gizarte- eta ingurumen-irizpideak txertatzea.

REASEk (ekonomia sozial eta solidarioko sareak) auditoretza sozialerako tresna bat du, enpresek eta erakundeek, baita haien produktuek eta zerbitzuek ere, ekonomia solidarioaren balioak betetzen dituztela bermatzeko.

Horiek betetzea eta publikoki jakinaraztea enpresa eta erakunde horiekin harremanak dituztenentzako konfiantza-zigilua da.

Gaur egun, **Merkatu Soziala** deritzona dago, ondasun eta zerbitzuen ekoizpen, banaketa eta kontsumo sarea. Sare horrek irizpide etiko, demokratiko, ekologiko eta solidarioak hartzen ditu kontuan, lurralde jakin batean, eta ekonomia sozial eta solidarioko enpresa eta erakundeek nahiz kontsumitzaile indibidual eta kolektiboek osatzen dute. **Lurralde bakoitzeko merkatu sozialek eskaintzen dituzten produktu eta zerbitzuak** askotarikoak dira: finantzak eta aseguru etikoak, aholkularitza eta zerbitzu juridikoak, komunikazioa eta irudia, garbiketa, energia, elektronika, informatika eta IKTak, industria eta eraikuntza, hondakinen kudeaketa, papergintza eta inprimaketa, etxebizitza eta hirigintza, aholkularitza eta ikerketa, elikadura, altzariak, tresneria eta dekorazioa, osasuna eta zainketak, ehungintza, oinetakoak eta osagarriak, etab.

Hauek dira ekonomia sozial eta solidarioko sare garrantzitsuenetako batzuk:

Sarea	Eremua	Deskribapena	Webgunea
REAS Euskadi (Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea)	EAE	Irabazi-asmorik gabeko bigarren mailako elkarteak da, eta hainbat figura juridikotako erakundeak biltzen ditu: kooperatibak, elkarteak, laneratzeko enpresak, sareak eta abar. Erakunde horiek ekonomia solidarioarekin identifikatzen dira, helburuak partekatzen dituzte eta ekonomia jasagarriagoa, bidezkoagoa eta inklusiboagoa eraikitzen laguntzen dute.	https://reaseuskadi.eus/eu/ongi-etor
REAS Ekonomia Alternatibo eta Solidarioko Sareen Sarea	Espainia	Espainiako Estatuan hedatutako sare konfederala; ekonomia sozial eta solidarioa bultzatzen duten estatuko edo mugaz gaindiko beste errealitate batzuekin lotuta dago. Gaur egun, 15 lurralde-sarek eta 4 sektore-sarek osatzen dute. Sare horiek 50.000 pertsona baino gehiago biltzen dituzte 944 erakunde eta enpresatan.	https://reas.red/

<p>RIPES (Ekonomia soziala solidarioa sustatzeko kontinentearteko sarea)</p>	<p>Nazioartea</p>	<p>Ekonomia sozial eta solidarioaren sustapenarekin konprometitutako sare kontinentalen munduko sarea. RIPESeko kide diren sareek (Latinoamerika eta Karibe, Ipar Amerika, Europa, Afrika, Asia eta Ozeania), era berean, sare nazionalak eta sektorialak biltzen dituzte. Tokiko irismenak eta irismen globalak legitimitatea ematen dio ekonomia sozial solidarioa sustatzeko, kontinentearteko lankidetzak bultzatzeko eta hainbat mailako politiketan eragiteko.</p>	<p>https://www.ripess.org/?lang=es</p>
<p>OlatuKoop</p>	<p>Euskal Herria</p>	<p>Ekonomia sozial eta eraldatzailearen sarea. Erakundeen arteko lankidetzak, gizarte-ongizatea eta jarduera ekonomikoak guztion ongiari bultzatzea sustatzen du.</p>	<p>https://olatukoop.eus/</p>

5.2. Ziurtagiriak eta ekimenak, gizarte-irizpideak eta bidezko merkataritzako irizpideak kontuan hartuta

Ziurtagiri sozialak honako alderdi hauek hartzen ditu kontuan: **lan-eskubideak, enpleguaren kalitatea**, enpleguari lotutako gizarte-talde espezifikoak (dibertsitate funtzionala duten pertsonak edo gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan daudenak edo gizarte-bazterkeria jasaten daudenak), **ekonomia sozial eta solidarioaren enpresen** ikuspegia, **aukeraberdintasunaren** sustapena eta irisgarritasuna. Ekimen ugari dauden arren, egia da ziurtagiri horiek merkaturatu ez direla oso ezagunak.

Bestalde, **bidezko merkataritzako ziurtagiriak** bermatzen du produktuak **ekoizleen eskubideak babesten** dituen eredu baten arabera egin eta merkaturatu direla, batez ere munduaren Hegoaldean. Bidezko merkataritzak **soldata duinen** eta lan-baldintza egoki eta seguruen ordainketa bermatzen du, eta, gainera, **haurren esplotazioaren aurkako borrokan** laguntzen du eta genero-berdintasunaren alde egiten du.

Hona hemen ziurtagiri sozial eta bidezko merkataritzako ziurtagiri garrantzitsuenetako batzuk:

<p>SOZIALAK ETA BIDEZKO MERKATARITZAKOAK</p>			
<p>Ziurtagiria / Ekimena</p>	<p>Eremua</p>	<p>Deskribapena</p>	<p>Webgunea</p>
<p>Auditoria Soziala eta Merkatu Soziala</p>	<p>EAE/Espainia</p>	<p>Enpresek ekonomia sozial eta solidarioko printzipioak betetzen dituztela egiaztatzen du.</p> <ul style="list-style-type: none"> • EAEko erakundeentzako bilatzailea: https://merkatuzoziala.eus/ • Estatuko sareko katalogoa: https://mercadosocial.net/ 	<p>https://reaseuskadi.eus/eu/egiten-dugu/auditoria-soziala/</p>

Gizatea, Laneratzeko Enpresen Elkarte	EAE	<ul style="list-style-type: none"> Haren helburua da sektorea hobetzen eta indartzen laguntzea, lankidetzaz sustatzea edo erakunde publikoekin eta gizartearekin elkarriketa erraztea. Euskadiko gizarteratze-enpresen bilatzaile bat du, enpresa, produktu eta zerbitzuen arabera. 	https://www.gizatea.net/eu/produktuak-eta-zerbitzuak/
ETI (Merkataritza Etikoaren Ekimena)	Nazioartea	Konpainien, GKEen eta merkataritza-erakundeen arteko aliantza da, eta jokabide-kodeen ezarpena sustatu eta hobetu nahi du.	https://www.ethicaltrade.org/
Fair Wear Foundation (FWF)	Nazioartea	Fundazio honek ehungintzaren industriako lan-baldintzak hobetu nahi ditu.	https://www.fairwear.org/
ISEAL	Nazioartea	Nazioarteko Gizarte eta Ingurumen Egiaztapenerako Etiketatze Aliantza.	https://www.isealalliance.org/
JO-IN	Nazioartea	Erantzukizun korporatiboko eta langileen eskubideen aldeko ekimen komuna.	https://jo-in.org/pub/about.shtml
Fair Labor Association (FLA)	Nazioartea	Mundu osoko lan-baldintzak hobetzea du helburu, nazioarteko lan-arauak sustatuz, enpresek eta erakundeek horiekin bat egin dezaten.	https://www.fairlabor.org/
Fiare Banku Etikoa	Europa	Banku kooperatiboa da, eta diruaren balio soziala berreskuratzea du helburu, pertsonen eta erakundeen aurrezki bideratzeko, ekonomia sozial eta solidarioarekin proiektu lotuak dituzten enpresak eta erakundeak finantzatzeko.	https://www.fiarebancaetica.coop/eu
EthSI (Ethical and Solidarity Based Insurance)	Espainia	Kalitate etiko eta solidarioaren bereizgarria. Aseguru-etxeen, gestoreen eta aseguratzaileen eta merkaturatzen dituzten produktuen gardentasun-maila eta jardunbide egokiak baloratzen ditu.	https://ethsi.net/es/

BIDEZKO MERKATARITZA			
Certificado / Iniciativa	Ámbito	Descripción	Web
WFTO	Nazioartea	Autoebaluazioko, elkarrekiko ebaluazioko eta ziurtapeneko sistema independente batean oinarritzen da, eta Bidezko Merkataritzako Mundu Erakundeak aldarrikatutako Bidezko Merkataritzako irizpideen betearazpena du oinarritzat.	https://wfto.com/

FairTrade	Nazioartea	FLO sistemak produkzioak Bidezko Merkataritzaren irizpideak betetzen dituela bermatzen du. Produktuei aplikatzen zaie.	https://www.fairtrade.es/
SPP GLOBAL	Nazioartea	2006an sortu zen ekimena, Bidezko Merkataritzako Ekoizle Txikien Latinoamerikako eta Karibeko Koordinakundearen eskutik (CLaC). Gaur egun FairTrade Internationaleko kidea da.	https://spp.coop/
Fair for Life	Nazioartea	Nekazaritza, fabrikazio eta merkaturatzerako bidezko merkataritzaren ziurtapen-programa, Ecocert erakunde independenteak emana.	https://www.fairforlife.org/
Ethiquable (marka)	Frantzia	Bidezko merkataritzan lan handia egiten ari den enpresa frantsesa da; batez ere Hegoaldeko talde ekoizleekin egiten du lan.	https://www.ethiquable.coop/
Alternativa3 (banatzailea/marka)	Espainia	Bidezko merkataritzako eta merkataritza ekologikoko kooperatiba.	https://alternativa3.com/
Ideas (banatzailea/marka)	Espainia	Bidezko merkataritzan diharduen Kordobako enpresa espainiarra. Nekazariekin zein beste marka batzuekin lan egiten du.	https://ideas.coop/

5.3. Ingurumen-ziurtagiriak

Ziurtagiri ekologikoaren edo ingurumen-ziurtagiriaren oinarria da **ingurumen-irizpideak txertatzea ekoizteko, enpresako eta merkataritzako kudeaketa-prozesuetan**, hala nola energia-eraginkortasunean, energia berriztagarrien erabileran, berotegi-efektuko gasen emisioen minimizazioan, nekazaritza ekologikotik datozen produktuen erabileran edo hondakinen kudeaketa egokian.

Ingurumen-ziurtagirien artean hiru zigilu-kategoria daude:

- Etiketa ekologiko ofizialak: nazioartekoak, nazionalak edo probintzialak izan daitezke.
- Autoadierazpenak: enpresaren borondatezko ekimenak dira, kanpoko baloraziorik gabeak, eta produktuaren ingurumen-alderdi bat baino ez dute ebaluatzen, eta ez produktuarena osorik.

- Profil ekologikoak: familia bereko produktuen arteko konparazioa egiten da, Bizi Zikloaren Analisiari (BZA) erreparatuta.

Zigilu ekologikoa ziurtagiri bat da, eta ziurtagiri horren bidez enpresa ekoizle baten produktua ekologikotzat jotzen da. Zigilu hori lortzeko, enpresa ekoizleak ekoizpen-estandarren multzo bat bete behar du hazkuntza-, prozesatze-, packaging-, biltegiatze- eta banaketa-prozesu osoan, produktuaren kalitatea bermatuz eta produkzio-prozesuaren kontrola ziurtatuz.

Gainera, produktua ebaluatzeaz gain, enpresak eta eraikuntza ere ebaluatzen dira, eta, beraz, honako hauek aurki ditzakegu:

- Enpresentzako etiketa “berdeak”: artisauen edo eraikuntza-enpresen ezaugarri profesionalak ebaluatzen dituzte.
- Produktuaren emisioen etiketak.
- Eraikinari buruzko etiketa ekologikoak: eraikin oso baten energia- edo ingurumen-errendimendua ebaluatzen dute.

INGURUMENEOAK			
Ziurtagiria / Ekimena	Eremua	Deskribapena	Webgunea
AENOR Ingurumena	Espainia	ISO 14001 arauan oinarritutako ziurtagiria, produktuaren bizi-zikloari buruzkoa.	https://www.aenor.com/certificacion/medio-ambiente
Energia-eraginkortasunari buruzko ziurtagiria (EEZ)	Espainia	Eraikinen CO2 emisioei buruzko eta energia-kontsumoari buruzko informazioa ematen duen dokumentua.	https://labur.eus/CertificadoEficienciaEnergetica
PEFC eta FSC	Nazioartea	Eremu natural guztiak modu jasangarrian kudeatzen eta ustiatzen direla bermatzen duten baso-ziurtagiriak.	https://www.pefc.es/ https://www.es.fsc.org/es-es
EHKolektiboa	Euskal Herria	Euskal Herriko nekazaritzako baserri bioekologikoak, autoktonoak eta herrikoiak identifikatzen eta bereizten dituen partaidetzazko berme-sistema.	https://ehkolektiboa.eus/
Nekazaritza eta Abeltzaintza Ekologikoa Euskadi- Ekolurra	EAE	Bereizgarri propioa, Euskadin ekoizten eta/edo egiten diren elikagai ekologikoak identifikatzen dituena. Gainera, elikagaien etiketa ekologikoak ezarritako gutxienezko baldintza batzuk gehitzen dizkie, bereizteko eta balioa emateko. <u>Ekoizle ekologikoen bilatzailea.</u>	https://ekolurra.eus/
Europako zigilu ekologikoa	Europa	Zigilu horri esker kontsumitzaileek produktu ekologikoak identifikatu eta nekazariak EBko herrialde guztietan merkaturatu ditzakete.	https://labur.eus/SelloEcologicoEuropeo
Biocoop	Frantzia	“Ensemble solidaire avec les producteurs” marka BioCooP enpresak sortu zuen Frantzian 2000. urtean, % 100 ekologikoak diren nekazarien erakundeekin merkataritza-harreman bereziak garatzeko.	https://www.biocop.es/
Naturland Fair	Nazioartea	Mundu osoan agroekologia sustatzen duen nazioarteko erakunde handienetako bat da.	https://www.naturland.de/es/
EcoLabel	Europa	Produktuak konparatzeko aukera ematen du, eta baita produktu edo zerbitzu bat ekoizpen eta kontsumo jasangarriko politikaren arabera egin den jakiteko ere; horrela, produkzioaren eragin kaltegarria murrizten da.	https://www.ecolabel.net/es/belgelendirme/

Oeko-Tex Standard 100	Nazioartea	Ehungintzako eta larrugintzako produktu jasangarrien ziurtagiria.	https://labur.eus/Oeko-Tex
AENOR Zero hondakin	Espainia	Hondakinen kudeaketa antolatua ziurtatzen du, hondakinen sorrera murrizteko, berrerabilpenerako prestatzeko eta/edo hondakina lehengai bihurtzeko, eta berriro balio-katean sartzen ditu.	https://www.aenor.com/certificacion/medio-ambiente/residuo-cero
AENOR Zero elikagai-hondakin	Espainia	Erakundeek elikagaiak alferrik galtzea murrizteko egiten duten lana balioesten du.	https://www.aenor.com/certificacion/medio-ambiente/residuo-cero

Arestian zehaztutako ziurtagiriek konfiantza handia ematen dute gizarte- eta ingurumen-irizpideak betetzeari dagokionez. Hala ere, ziurtagiri horiek dituzten produktuak edo erakunde hornitzaileak aurkitzen ez badira, **ISO ziurtagiriak** edukitzea lagungarria izan daiteke produktuak eta hornitzaileak aukeratzeko.

Egiaztagiri horiek Normalizaziorako Nazioarteko Erakundeak (ISO, ingelesez) egiten ditu. Nazioarteko arau teknikoen multzoa dira, eta mota guztietako erakundeei industrian produktuak kudeatu, eskaini eta garatzeko homogeneousotasun-mailak ezartzen laguntzeko sortu dira. Merkatu osoan, estatuan eta nazioartean, bete beharreko oinarritzko araudia da, eta, borondatez aplikatu arren, nazioartean aintzatespen eta onarpen handia lortu dute.

ISO 20400 arauak, **erosketa jasangarriari buruzkoak**, erosketa arduratsu eta jasangarriak bideratzeko enpresek erabil ditzaketen irizpideak eta printzipioak ezartzen ditu. Arau hori zuzenean ezartzen zaio produktu eta zerbitzu baten edozein erosketari; izan ere, erosketa-ekintza horrek hornidura-katean, ingurumenean eta, oro har, gizartean eragin positiboa eta biderkatzailea izan dezake, eta erakundeak kontziente bihurtzen ditu eraldatzeko eta erantzukizun sozialerako duten ahalmenaz.

Hauek dira gizarte- eta ingurumen-irizpideak kontuan hartzen dituzten ISO arau batzuk:

Ziurtagiria	Deskribapena
ISO 20400	Erosketa jasangarria egiteko jarraibideak ematen ditu.
ISO 14001	Ingurumen-kudeaketako sistemarako eskakizunak ezartzen ditu.
ISO 14046	Ur-aztarnaren ebaluazio bakar edo indibidual bat (edo ingurumen-ebaluazio integralago baten barruan) egiteko eta horren berri emateko aukera ematen du.
ISO 26000	Erantzukizun sozial korporatiboa integratzeko baldintzak jasotzen ditu, erakundeei garapen jasangarria sustatzen laguntzeko. Ez da arau egiaztagarria.
ISO 50001	Erakunde batean energia kudeatzeko sistema batek bete behar dituen baldintzak jasotzen ditu.

6

EROSKETA ARDURATSURAKO TRESNA PRAKTIKOAK



6.1

Erosketa arduratsuko politika
26

6.2

Ekintza-planaren eredia erosketa
arduratsuaren irizpideak kontuan hartuta
26

6.3

Enpresa hornitzaileentzako galdetegia
28

Atal honetan erosketaren arduratsua egiteko baliagarriak izan daitezkeen tresna batzuk jasotzen dira. Tresna horiek aplikatzearekin batera, **enpresak bere balioak, ikuspegia eta misioa birplanteatu** behar ditu, erosketa arduratsua ez baita soilik kontsumo-proposamen bat, baizik eta giza eskubideetan eta naturaren eskubideetan oinarritutako proposamen eraldatzaile soziokultural bat.

Proposatzen diren tresnak honako hauek dira: 1) erosketa-politika, enpresak erosketa arduratsuaren alde egindako apustu politikoa islatzen duena; 2) apustu hori zehazteko ekintza-plan bat; eta 3) enpresa hornitzaileentzako galdetegi bat, haien jardunbideei buruzko informazio garrantzitsua biltzeko eta, horrela, lehenetsitako irizpideak betetzen dituzten jakiteko balio dezakeena.

Atal honetan proposatzen den tresna praktikoa bakoitzak **enpresa bakoitzaren errealitatera egokitu behar du.**

Erosketa arduratsua egitea prozesu mailakatua da, eta aldi baterako helburuak betetzeko urratsak egin daitezke, lortu nahi ditugun azken helburu horiek lortze aldera.

Horregatik, garrantzitsua da ariketa errealista egitea bakoitzaren helburu eta denborekin, plan pilotuak ezartzeko aukera baloratzea, irizpideak errazago aplikatzen zaizkien erosketak hautatzea, eta horri buruz ematen diren urratsen jarraipena eta ebaluazioa egitea, erosketa arduratsua lortzeko prozesua arrakastatsua izan dadin.

6.1. Erosketa arduratsuko politika

Erosketa arduratsuko politika garatzea urrats garrantzitsua eta beharrezkoa da enpresa osoak ikuspegi hori bere zereginetan txertatzen duela bermatzeko, erosketa arduratsuaren aldeko apustua benetan eta eraginkortasunez sendotzeko. Horri esker, koherenteak izango gara irizpide horiek betetzeko eskatuko diegun enpresa hornitzaileekin.

Ikuspegi hori enpresaren estrategia orokor gisa lehenestean, erosketa arduratsuaren irizpideak lehenesten ditugu, ekonomikoak baino gehiago. Horri esker, **praktikaren bidez kontzientziatu** eta sentsibilizatu daitezke, ez soilik enpresa **hornitzaileak**, baita **langileak** eta gure enpresak eskaintzen dituen zerbitzuen **kontsumitzaileak** edo **onuradunak** ere.

Erosketa arduratsuko politika bat sortuz, enpresak gizartean duen erantzukizuna onartzen du, eraldaketaren sortzaile eta eragile gisa gizarte bidezkoago, etikoago eta jasangarriago baterantz eramateko boterea bere gain hartuz. Horrela, merkatuan esku hartzen du, eta gizartean eta ingurumenean ere eragin positiboa sortzen du.

Erosketa politika arduratsuaren ondoren, ETEek politika hori publiko egin dezakete, eta, horrela, herritarrei, beste enpresa eta erakunde batzuei erakutsi gizarte bidezkoago, etikoago eta jasangarriago bat eraikitzeke konpromiso soziala dutela, eta horrek erreferente bihurtzen du gainerakoentzat ere.

I. eranskinean, erosketa arduratsuko politika-eredu bat dago, enpresa bakoitzak bere politika propioa bizi duen errealitatearen arabera eraikitzeke adibide gisa erabil dezan.

6.2. Ekintza-planaren eredua erosketa arduratsuaren irizpideak kontuan hartuta

Gizarte- eta ingurumen-irizpideak erosketa- eta kontratazio-jardunbideetan txertatu ahal izateko, erakundeak denbora, baliabideak eta ahalegina eman behar ditu. Horretarako, oso baliagarria izan daiteke ekintza-plan bat egitea, aukera ematen baitu irizpideak ezartzeko prozesua zehazteko eta ezarpen horren jarraipena egiteko.

Beheko estekan/QR-kodean ekintza-planaren eredu bat dago, helburuak zehazteko, hobetzeko aukerak identifikatzeko eta aurrerapena neurtu eta ebaluatzeko. Tresna honek hiru fitxa ditu:

- 1. fitxa. “Adierazleak eta lortu nahi den irismena (eredua)”. Ekintza-planaren prototipo bat da, eta bertan, erakundeek adibideak eta inspirazioa aurkituko dituzte ekintza-planak egiteko.
- 2. fitxa. “Adierazleak eta lortu nahi den irismena (bete beharrekoa)”. Fitxa horretan, erosketa arduratsua egiteko erakundeetan bertan egindako ekintza-plana jasoko da.
- 3. fitxa. “Jarraipena (bete beharrekoa)”. Erakundeak egindako eta 2. fitxako ekintza-planarekin alderatuta erakundeak egin duen aurrerapena jaso ahal izango da.



Ekintza-planaren eredua

6.3. Enpresa hornitzaileentzako galdetegia

Gizarte- eta ingurumen-irizpideak kontuan hartuta erosketa arduratsua egiteko, funtsezkoa da konfiantzazko espazioak sortzea gure enpresaren eta hornitzaileen artean.

Batzuetan, gizarte- edo ingurumen-irizpideak ezin izango dira bermatu produktuaren ekoizpenaren enpresa-sarea dela eta, edo ezin izango da tokiko ekoizpenik aukeratu, herrialdean ez dagoelako lehengairik edo manufakturatutako produkturik. Hala ere, enpresa hornitzaileei jakinarazteak gure enpresak irizpide horien betearazpena bermatzen duten hornitzaileak lehenesten dituela, norabide horretan urratsak ematera bultza ditzake.

Era berean, garrantzitsua da jakitea zein diren hornitzaileen jardunbideak eta zer gizarte- eta ingurumen-inpaktu dituzten, lehenesten ditugun irizpideak betetzen dituzten jakiteko. Horretarako, hornitzaileei galdetzea da errazena, eta hori galdetegi baten bidez egin daiteke.

II. eranskinean, galdera-sortaren eredu bat proposatzen da, enpresak erosketa arduratsuen irizpideak betetzen dituen jakiteko. Eredu orokorra da, eta komenigarria litzateke enpresa bakoitzak bere beharrian espezifikotara eta lan egiten duen sektorerara egokitzea.

7

EROSKETA ARDURATSURAKO BALIABIDEAK ETA JARDUNBIDE EGOKIAK




Enpresa-bilatzaileak

REAS Euskadi merkatu soziala	<p>REAS Euskadik sustatutako ekimena, pertsonen eta bizitzaren jasangarritasunaren zerbitzura dauden jardunbide ekonomiko alternatiboak bultzatzeko. Bilatzaile/merkatu sozialaren mapa honetan 19 sektoretako 110 erakundek baino gehiagok eskaintzen dituzten zerbitzuak eta produktuak aurki daitezke.</p> <p>https://merkatusoziala.eus/</p>
OlatuKoop	<p>Ekonomian eta ekintzaitza ekonomikoan modu eraldatzailean jarduten duten enpresa, elkarte, erakunde eta kooperatibek osatutako sarea. Erosketa arduratsuaren irizpideak kontuan hartzen dituen bilatzaile bat du.</p> <p>https://olatukoop.eus/</p>
Gizatea, Gizarteratzeko eta Laneratzeko Euskadiko Enpresen Elkartea	<p>Bere helburua da sektorea hobetzen eta indartzen laguntzea, lankidetzatza sustatzea edo erakunde publikoekin eta gizartearekin elkarrizketa erraztea. Euskadiko Gizarteratze Enpresen direktoria du.</p> <p>https://www.gizatea.net/eu/produktuak-eta-zerbitzuak/</p>
Saretuz	<p>Donostiako Kontsumo Kontzientearen eta Eraldatzailearen Sarea. Bere helburuen artean tokiko eta hurbileko kontsumoa sustatzea, kontsumo jasangarri eta kontzienteko jardunbideak sustatzea eta kideen arteko trukerako eta lankidetzarako sare bat egitea daude. Saltokien mapa bat du, erosketa arduratsuaren irizpideekin.</p> <p>https://saretuz.eus/</p>
Zentzuz	<p>Gasteizko Bidezko Merkataritzaren eta Kontsumo Arduratsuaren Sarea. Hiru erakundek osatzen dute, eta Gasteizen bidezko merkataritza eta ondasunen eta zerbitzuen kontsumo arduratsua sustatzeko lan egiten du. Saltokien mapa bat du, erosketa arduratsuaren irizpideekin.</p> <p>https://consumoresponsable.info</p>
Bidezko Merkataritzako Estatuko Koordinakundea	<p>Bidezko Merkataritzako estatuko online denden direktoria.</p> <p>https://comerciojusto.org/tiendas/tiendas-on-line/</p>
EHLABE (Euskal Herriko Lan Babestuen Elkartea)	<p>Desgaitasuna duten pertsonen gizarte- eta lan-inklusioa sustatzen duten irabazi-asmorik gabeko erakundeen euskal elkarte. Datu-banku bat dute.</p> <p>https://www.ehlabe.org/eu/ehlabe/</p>
SANNAS, Balantze Hirukoitzaren aldeko Enpresen Elkarte	<p>Enpresa horiek balantze hirukoitzean –ekonomikoa, ekologikoa eta soziala– oinarritutako eredia partekatzen dute, eta enpresa-eredu tradizionala eraldatzen saiatzen dira, gizarte jasangarriagoa eta bidezkoagoa eraikitzen lagunduz. Enpresa bazkideen direktoria dute.</p> <p>https://www.sannas.eu/empresas-socias/</p>

Tresnak

<p>Fem-Check</p>	<p>Egiatzapen-zerrenda eta erabilera-eskuliburu bat, erakunde baten ekintzak genero-ikuspegitik modu errazean ebaluatzeko.</p> <p>https://www.emaus.com/pdf/DEF_fem_check_CAST.pdf</p>
<p>Karbono-aztarnaren kalkulagailua</p>	<ul style="list-style-type: none"> • REAS Nafarroak karbono-aztarna nola kalkulatzeko duen azaltzen du. <ul style="list-style-type: none"> • https://reasna.org/como-se-calcula-la-huella/ • https://reasna.org/que-nuestro-co2-no-deje-huella/ • Trantsizio Ekologikorako Ministerioak garatutako tresnak, erakundeen eta enpresa txiki eta ertainen karbono-aztarnaren kalkulua eta xurgapen-proiektu batek sortzen dituen karbono dioxidoaren xurgapenaren zenbatespena errazteko. <p>https://www.miteco.gob.es/es/cambio-climatico/temas/mitigacion-politicas-y-medidas/calculadoras.aspx</p>
<p>Enpresentzako ingurumen-jasangarritasunari buruzko nazioarteko eta estatuko legeen eta zuzentarauen bilatzailea</p>	<p>Nazio Batuen Erakundearen Mundu Itunaren Espainiako Sareak sortutako bilatzailea, enpresek informazio ez-finantzarioari, ingurumenari, giza eta gizarte eskubideei eta gobernu onari buruzko estatuko zein nazioarteko araudi guztiak eguneratuta izan ditzaten.</p> <p>https://www.pactomundial.org/que-puedes-hacer-tu/leyes-directivas-normativas-sostenibilidad/</p>
<p>LANEK haurren lanari buruz enpresei zuzendutako orientazio-tresna</p>	<p>Adingabeek eta hurrek lanik ez egiteko duten eskubidea errespetatuz negozioak egiteko gomendioak ematen ditu.</p> <p>https://www.ilo.org/wcmsp5/groups/public/---ed_norm/---ipec/documents/instructionalmaterial/wcms_ipecc_pub_28417.pdf</p>
<p>Nola garatu giza eskubideen politika bat</p>	<p>Enpresa eta erakundeentzako gida, Mundu Itunaren bulegoak eta Giza Eskubideetarako Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoak egina.</p> <p>https://d306pr3pise04h.cloudfront.net/docs/publications%2FPolítica-de-Derechos-Humanos-traducida.pdf</p>



Parte hartzeko eta eragiteko guneak

<p>REAS Euskadi</p>	<p>Irabazi-asmorik gabeko bigarren mailako elkarte da, eta hainbat figura juridikotako erakundeak biltzen ditu: kooperatibak, elkarteak, laneratzeko enpresak, sareak eta abar. Erakunde horiek ekonomia solidarioarekin identifikatzen direlako elkartzen dira, helburuak partekatzen dituzte eta ekonomia jasangarriagoa, bidezkoagoa eta inklusiboagoa eraikitzen laguntzen dute. Munduko eta tokiko egungo sistema sozioekonomikoa eraldatzen laguntzen duen mugimendu ekonomiko, sozial eta politiko baten parte da, eta horretarako ekimen ekonomiko alternatiboak bultzatzen ditu.</p> <p>https://reaseuskadi.eus/eu/ongi-etorri/</p>
<p>COMparte plataforma</p>	<p>Jasangarritasunaren eta enpresa jasangarriaren arloko Enpresa Jardunbide Egokien Plataforma. Nazio Batuen Erakundearen Mundu Itunaren Espainiako Sareak garatutako plataforma.</p> <p>https://compactlink.pactomundial.org/plataforma-buenas-practicas-COMparte</p>
<p>Ondasun Komunaren Ekonomiaren Espainiako Federazioa</p>	<p>Ondasun komunaren ekonomiaren (OKE) nazioarteko mugimenduari lotutako edozein figura juridikoko enpresak, 2011n Europan sortutako merkatu-ekonomia kooperatiboaren eredia. Eredua horren muina da enpresek, emaitza ekonomikoaz gain, giza duintasuna, elkartasuna eta justizia, ingurumenaren jasangarritasuna eta gardentasuna eta parte-hartze demokratikoa errespetatzeko konpromisoa hartzen dutela.</p> <p>https://economielbiencomun.org/</p>

Hornidura-sareei eta kontsumoari buruzko informazio gehiago

<p>Clean Clothes Campaign</p>	<p>Sindikatuaren eta gobernuaren kanpoko erakundearen koalizio globala, eta elkarrekin lan egiten dute jantzigintzaren eta modaren industriako lan-baldintzak hobetzeko eta lan-esplotazioaren aurka borrokatzeko. Sentsibilizazioaren, ikerketen, monitorizazioaren, kanpaina publikoen eta eragin politiko eta sozialaren bidez lan egiten dute.</p> <p>https://cleanclothes.org/about</p>
<p>Latinoamerikako Multinazionalen Behatokia</p>	<p>Paz con Dignidad elkarteak sortutako proiektua, nazioz haraindiko enpresen jardunak gizartearen, ingurumenaren, kulturen, ekonomian eta giza eskubideetan eragin dituen inpaktuak dokumentatzeko, ikertzeko eta salatzen.</p> <p>www.omal.info</p>
<p>Opciones</p>	<p>Kontsumo kontzienteari eskainitako aldizkaria, kontsumoa gure ingurunea aldatzeko eta justizia globalean eta ingurumenaren eta pertsonen zaintzan oinarritutako gizarte-eredu batera hurbiltzeko eskura dugun tresna boteretsua dela uste duten pertsonen komunitateak bultzatua.</p> <p>https://opcions.org/es/</p>
<p>Carro de combate</p>	<p>Kontsumoa eta jasangarritasunari buruzko ikerketak egiteko kolektiboa.</p> <p>https://www.carrodecombate.com</p>
<p>Enpresa Arduratsuen aldeko plataforma</p>	<p>Gizarte zibileko 18 erakunde espainiarrek osatzen dute, 530 erakunde baino gehiago ordezkatzeko dituzte, eta ahaleginak batzen dituzte Espainian giza eskubideen eta ingurumen-eskubideen arloan behar bezalako arreta jarriko duen lege lotesle bat ezartzeko.</p> <p>https://empresasresponsables.org</p>

8

ERANSKINAK

I. ERANSKINA

Erosketa arduratsuko politika

Eredua

33

II. ERANSKINA

Enpresa hornitzaileentzako

galdetegi orokorra

Eredua

36

I. ERANSKINA

Erosketa arduratsuko politika

Eredua

1. Politikaren xedea

Erosketa Arduratsuko Politikaren (aurre rantzean, Politika) helburua jarduteko esparru orokor bat ezartzea da, hornitzaileen hautaketa eta kontratazioa barne-araudiarekin bat datorrela eta [erakundearen izena] erakundeak jasangarritasunari buruz hartutako konpromisoa betetzen duela ziurtatzeko.

Lortu nahi den kudeaketa arduratsuaren barruan, politika honek ondasunak eta zerbitzuak erosteko jarraibideak/irizpideak jasotzen ditu, ekonomiaren, ingurumenaren eta gizartearen alderdien arteko oreka bermatzeko.

Politika honen helburu nagusiak honela laburbiltzen dira:

- a) [Erakundearen izena](r)en jasangarritasun-konpromisoa ezartzea eta ezagutaraztea erakunde hornitzaileekin duen harremanetan, konpromisoa hartzeko eta gure nortasunarekin bat etor dadin.
- b) Erakunde hornitzaileen artean minimoak eta dokumentu honetan aurrerago zehaztuko diren ingurumen- eta gizarte-irizpideak bete daitezen sustatzea.

2. Politikaren aplikazio-eremua

Erosketa arduratsuko politika hau ondasun, produktu eta zerbitzu guztien hondakinak erosi, ekoitzi, prozesatu eta kudeatzeko prozesuari dagokio.

Helburu horiek kontuan hartuta, politika honek bi eskakizun-maila ezartzen ditu: kanpoan, hornitzaileentzako irizpideak (3. puntuan azaltzen dira); eta barnean, erakundeak erosketa arduratsurekin duen konpromisoari buruzkoa (4. atala).

Esparru korporatibokoa da, eta, beraz, [erakundearen izena](e)ko langile guztiei aplikatuko zaie, batez ere erosketa-eremuetako langileei, beren jardueretan politika honetan ezartzen diren printzipio eta jarraibideekin bat datozen printzipio eta jarraibideak bete ditzaten. Beraz, uste da politika hau erreferentziazko dokumentu korporatiboa dela eta erosketa-sail guztietarako gida izan daitekeela.

Aurrekoa baztertu gabe, politika hau erakundearen onartzen diren politikekin garatu eta osatuko da, betiere 3. puntuan zehaztutako jardun-printzipioekin lotura zuzena badute.

Beharrezko egokitzapenak egingo dira, hala badagokio, estatuko eta Europako Erkidegoko araudia betetzeko, bai eta kasuan kasuko erakundeek egindako gomendioak edo eskakizunak betetzeko ere.

[erakundearen izena] arduratuko da erosketa arduratsuko politika hau betetzen dela bermatzeko beharrezkoak diren oinarriak, tresnak eta jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak ezartzeaz.

3. Erosketa arduratsurako gizarte- eta ingurumen-printzipioak eta -irizpideak

[erakundearen izena](e)k erakundearen antzeko printzipioak aplikatzen dituzten eta hori frogatu dezaketen erakunde hornitzaileak aintzatesten ditu.

Nolanahi ere, eta arestian aipatutako errespetu- eta lankidetzajarrera oinarritzat hartuta, [erakundearen izena](e)k hornitzaileengandik espero du honako oinarritzko estandar hauek betetzea: jokabide etikoa, giza eskubideak, lan-eskubideak, laneko segurtasuna

eta osasuna, eta ingurumenarekiko errespetua. Jarraian aurkezten diren estandar horiek gutxieneko estandarrak dira, ez gehienezkoak.

Oinarri horiek aplikatzeaz gain, kasu bakoitzean aplikatu beharreko legeria betetzea espero dute enpresek (tokikoa, eskualdekoa, nazionala, nazioartekoa, etab.). Legearen xedapenek eta oinarritzko estandar horiek gai berari heltzen badiote, kasu bakoitzean langileentzako babes handiagoa ekarriko duen xedapena aplikatuko da.

3.1. Erosketa arduratsuaren gizarte-irizpideak:

[[erakundearen izena](#)](e)k beharrezkotzat jotzen du erakunde hornitzaileek honako irizpide sozial hauek betetzea, lanaren eta komunitatearen eremuko erantzukizun sozialarekin eta giza eskubideekin lotuta. Irizpide horien artean daude:

1. Lan-baldintza onak.
2. Genero-ekitatea.
3. Gizarte-inklusioa.
4. Tokiko garapena eta partaidetza komunitarioa sustatzea.
5. Bidezko merkataritza-jardunbideak.
6. Finantza etikoen eta aseguru etikoen tresnak erabili eta sustatzea.
7. Gardentasuna eta erantzukizuna hornidura-katean.

3.2. Erosketa arduratsurako ingurumen-irizpideak:

[[erakundearen izena](#)] erabat konprometituta dago bere jarduera guztietan ingurumena babestearekin, eta, horretarako, ingurumen-kudeaketa jasangarria, ekonomia zirkularra eta ekosistemen kontserbazioa sustatzen ditu.

Beraz, [[erakundearen izena](#)](e)k erakunde hornitzaileengandik espero du, kasu bakoitzean aplikatu beharreko ingurumen-legeria betetzeaz gain, konpainiak duen jokabide antzekoa izatea ingurumenarekiko errespetuari dagokionez. Horregatik, honako alderdi hauek betetzeko eskatuko zaie erakunde hornitzaileei:

1. Berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea
2. Hondakinen kudeaketa egokia, hondakin eta emisioetako materialen murrizketa, berrerabilpena eta birziklapena barne; gainera, ondoren horiek konpontzea edo birziklatzea erraztuko dute, eta material birziklatuz osatuta egongo dira.
3. Natura-baliabideen kontserbazioa.
4. Ingurumen-inpaktua murrizten duten produktuak eta zerbitzuak sustatzea.
5. Jardunbide jasangarriekiko eta ingurumen-erantzukizunarekiko konpromisoa egiaztatzen duten ingurumen-ziurtagiriak eta -zigiluak.

4. Politikarekiko konpromisoa

Arestian azaldutako jardun-printzipioen betearazpenaren jarraipena egiteko eta behar bezala bete direla gainbegiratzeko, [[erakundearen izena](#)](e) k erosketa arduratsuaren eredu bat ezarri du, eta, oro har, honako alderdi hauek biltzen ditu:

- 1. Konpromiso publikoa eta** gardentasuna: politika hau berrikustea, eguneratzea eta [[erakundearen izena](#)](e)ko eta beste alderdi interesdun batzuetako (hala nola erakunde hornitzaileak) langile eta boluntario guztiei jakinaraztea; web-orrian eskuragarri egongo da.
- 2. Erakunde hornitzaileen jarraipen- eta ebaluazio-prozesua:** gaur egun erakundearentzako lanean ari diren erakunde hornitzaileen jarraipena eta ebaluazioa egingo da, eta ingurumen- eta gizarte-irizpideak betetzen dituzten guztien erregistroa gordeko da barneko datu-base batean. Horretarako, jarraipen-fitxa bat egingo da, erakundearen datuak eta betetzen dituzten irizpideak jasota.

Erakunde hornitzaileek konpromisoa hartu behar dute [[erakundearen izena](#)](e)k erakundearen barruan ezartzen duen politika hori betetzeko
- 3. ESSren erakunde hornitzaileak aztertzea eta bilatzea:** erakunde hornitzaileei buruzko azterketa bat inplementatzea, irizpideetan oinarrituta.

Erakunde hornitzaile horiek estrategikoak izango dira [erakundearen izena](r)entzat, dituzten ezaugarriengatik, berezitasunagatik eta egokitasunagatik.

4. Komunikazio-mekanismoak: [erakundearen izena] (e)ko erosketa-eremuek edo -langileek etengabeko harremanetan jarraituko dute hornitzaileekin, politika honekin lotutako edozein eskaera, zalantza edo galdera erantzun edo argitzeko.

Halaber, nabarmendu behar da [erakundearen izena] (e)k, politika honekin bat etorritik, saihestu egingo duela azken bost urteetan segurtasunaren eta osasunaren arloan edo giza eskubideen arloan legezko, laneko, ingurumeneko edo legezko ez-betetzerekin bat edo ez-betetze fiskalen bat egin dutela jakin eta hori konpondu ez duten hornitzaileak kontratatzea. Politika honetako irizpideren bat errespetatzen ez bada, [erakundearen izena](e)k erakunde hornitzailearekin duen harremana deuseztatzeko eskubidea beretzat gordeko du.

5. Politikaren ebaluazioa eta jarraipena

[erakundearen izena](r)en [organoa] arduratuko da erosketa arduratsuko politika hau onartzeaz, eta, beraz, arau-esparru honetan jasotako printzipioak eta konpromisoak betetzen direla zaintzeaz.

Era berean, sortu egiten da eta [organoaren izena] (e)ri esleitzen zaio politika honen betetze-mailaren jarraipena egiteko erantzukizuna.

Horretarako, [erakundearen izena](e)k honako tresna hauek erabiliko ditu:

- Enpresentzako jarraipen-galdetegia.
- Erosketa arduratsurako ekintza-plana.

Erosketa arduratsuko politika enpresa barruan eta erakunde hornitzaileetan zabalduko da, eta eskuragarri eta eguneratuta egongo da, interesdun talde guztiek ezagut dezaten.

6. Politika onartzea eta berrikustea

[erakundearen izena](e)k onartu egin du erosketa arduratsuko politika hau, [urtea](e)ko [hilabetea]ren [eguna](e)(a)n, indarraldi mugagabea izango du eta [erakundearen izena](r)en web-orrian argitaratuko da. Edukia aldizka berrikusiko da, eta egokitzen jotzen diren aldaketak egingo dira.

II. ERANSKINA

Enpresa hornitzaileentzako galdetegi orokorra

Eredua

Betetze-data:	
---------------	--

Galdetegiari erantzuten dion pertsona:	
Izen-abizenak:	
Kargua:	
Harremanetarako datuak:	

Enpresari buruzko informazio orokorra:	
Enpresaren izena:	
IFZ:	
Eratze-data:	
Helbidea:	
Webgunea:	
Talderen batekoa zara? Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/> Izena:	
Akziodun nagusiak:	
Hornitzen dituen produktuak edo zerbitzuak:	

Langileak	Emakumeak		Gizonak		Ez-bitarra	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Kontratututako langileak, guztira:						
Kontratu mugagabeak:						
Lanaldi osoko kontratuak:						
Erantzukizuneko lanpostuak:						
Barne-taldeetan, batzordeetan edo sindikatuetan parte hartzea:						
Dibertsitate funtzionala duten pertsonak:						

Galdetegi orokorra erosketa arduratsua egiteko irizpideekin:			
1. Irizpide sozialak	Bai	Ez	ED/EE
1.1. Zure enpresa edo produktua zigilu edo etiketa sozialen batekin ziurtatuta al dago?			
Indarrean dagoen ziurtagiriaren kopia erantsi du			
1.2. Zure enpresa enplegu-zentro berezia, gizarteratze- eta laneratze-enpresa, ekonomia sozialeko enpresa edo GKEa al da? (Zehaztu)			
1.3. Zure enpresak ba al du etika- edo jokabide-koderik ezarrita?			
Kopia erantsi du			
1.4. Zure enpresak ba al du berdintasun-planik?			
Kopia erantsi du			
1.5. Zure enpresak ba al du protokolorik sexu-jazarpenari eta -indarkeriari aurre egiteko?			
Kopia erantsi du			
1.6 Ba al du neurri zehatzik enplegatuen familia eta lana bateragarri egiteko?			
Kopia erantsi du			
1.7. Zure enpresak ba al du planik jatorri etnikoagatik, sexu- eta genero-aniztasunagatik edo dibertsitate funtzionalagatik ez diskriminatzeke?			
Kopia erantsi du			
1.8. Askotariko dibertsitateak dituzten pertsonak edo gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden kolektiboak laneraten al ditu?			
1.9. Arriskuak identifikatzen eta ebaluatzen ditu eta arrisku horiek minimizatzeko neurriak ezartzen ditu?			
1.10. Ba al du aliantzarik hirugarren sektore sozialeko erakundeekin?			
Zehaztu zeintzuk:			
1.11. Dauden ekimen komunitarioak babesten ditu?			
Zehaztu zeintzuk:			
1.12. Irisgarritasun unibertsala bermatzen duten xedapenak jasotzen al ditu zehaztapan teknikoetan?			
1.13. Zure enpresa edo produktua zigilu edo etiketa sozial edo bidezko merkataritzako etiketa batekin ziurtatuta al dago?			
Indarrean dagoen ziurtagiriaren kopia erantsi du			
1.14. Zure enpresa atxikita al dago gizarte-erantzukizunaren arloko nazioarteko ekimenen batera, hala nola Mundu Itunera, enpresa multinazionaleri eta gizarte-politikari buruzko printzipioen hiruko adierazpenera, etab.?			
Kopia erantsi du			
1.15. Hornitzaileak sozialki arduratsuak diren enpresen irizpideak kontuan hartuta aukeratzen al ditu?			
1.16. Ezagutzen al ditu nazioarteko zein nazioko enpresa hornitzaileen gizarte- eta lan-baldintzak (lan-eskubideei dagokienez)?			
1.17. Zure enpresak ba al du tresnarik enpresa hornitzaileen lan-eskubideak egiaztatzeke?			
Tresna erantsi du			

2. Ingurumeneko irizpideak	Bai	Ez	ED/EE
2.1. Zure enpresa edo produktua ingurumen-zigilu edo -etiketaren batekin ziurtatuta al dago?			
Indarrean dagoen ziurtagiriaren kopia erantsi du			
2.2. Zure enpresak ba al du eta aplikatzen al du ingurumen-arloko kudeaketa- edo politika-planik?			
Kopia erantsi du			
2.3 Ingurumen-kudeaketako irizpideen arabera hautatzen al ditu hornitzaileak?			
2.4. Hondakinak identifikatuta al daude eta behar bezala kudeatzen al dira?			
2.5. Baliabide naturalak aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko jardunbideak eta prozedura inplementatzen al ditu produkzioan edo manufaktrazioan?			
2.6. Ba al du biltegiarik erakundea kokatuta dagoen herrian edo probintzian?			



